

Mugarri galduen itsumendua

Iñaki Camino

Argia, 1.071. zk., 1985-09-15: 4.

Esatekoa da, ezertan hasi baino lehen, Martin Ugalde biziki kezkatzen duela zahartzaroaren gaiak; idatzi dituen ipuiek hori garbi utzi dutenez gain, aldizkarietako elkarrizketetan berak aitortutakoa da. Esan bestalde, ipui hau agertu zela iaz Erein argitaletxeak kaleratu zion 6 ipuieko bilduman.

Mugarri galduen itsumendua, emakume zahar bati adinak exa besteen aldetik jasotako bazterketak dakarkion buru arintzea izan liteke. Urteen poderioz ongi ikasitako serora betebeharrak eta beste hainbat egiteko oker egiten hasiko da adinak bere argitasunaren mugarriak galduerazten dizkionean. Dena den, aste sandua baino pixka bat lehenago arhitze prozesu gelantik gertatzen da beregan, kontutan hartzekoa baita besteek jaukitzen dizkiote okerrak ez direla hainbesterainokoak.

Kontua da, erretore gazteak ez duela gogoko serora zaharra, eta honek ezin eramana du betebeharretatik baztertua izatea. Garbi asko ikusten da serora erretorea baino ahulagoa dela, katu baten konpañian bizitzen beharturik dagoela eta pixkanaka pixkanaka itzaliz doa xaharra, katuarekin batera, agian katuak erantsitako gaitzak jota. Haria makurka doa, astiro, seroraren itzeltzearekin parekatzearen jakina. Bizimodu ilunak eskatzen zuen akabera damakio idazleak serorari. Kejarik gabeko bakardadea erakusten digu ipui mingotsak.